

PATRONALAREN ETA INSTITUZIOEN ERABAKIEK EMAKUMEOK* GAIXOTU ETA HILTZEN GAITUZTE

Maiatzaren 28 honetan, Emakumeen* Osasunaren Nazioarteko Egunean, LABek emakumeok* osasunerako eta lan osasunerako dugun eskubidea aldarrikatu eta prekarietatearen ondorioz emakumeok* pairatzen dugun egoera salatu nahi du, baita lan arriskuen prebentziorako politika publiko eta pribatuetan genero ikuspegia falta dela ere.

Emakumeon* (eta heteroarautik kanpo dauden gorputzen) osasunaz ezer gutxi ezagutzen da, eta, hortaz, politika publikoek gure premiei ematen dioten benetako erantzunak eskasak dira. Kapitala ez dago hau guztia aldatzeko prest, ez dago emakumeei* ekarriko liekeen eskubide ekonomiko eta laboralen kostua onartzeko prest, bere irabaziak handitzen baititu langileen osasunaren kontura.

Prebentzio araudia, ezbehar tasaren estatistikak eta prebentzio sistema osoaren logika ikuspuntu androzentriko batetik abiatzen dira, hau da, gizonezko langilearen erreferente inplizitua mantentzen dute.

Lan osasuna ikuspuntu feministatik ulertzeko, genero aldagaia baloratu eta kontuan hartu behar da, baztertzaila eta diskriminatzailea ez izateko. Horrek esan nahi du segurtasun eta higiene arrisku klasikoetatik harago joatea, ulertuz ugalketa osasunaren babesa soilik ez dela genero ikuspegiak osasunean duen helburu nagusia.

Gainera, emakumeok* bizitza osoan egiten dugu lan, etxean eta etxetik kanpo. Etxean egiten den lanagatik ez dugu eskubiderik lortzen. Eta, ordaindutako enpleguan sexuaren araberako lan-banaketa egiten denez, gure lan baldintzen prekarizazioaz gain (behin-behinekotasuna, partzialtasuna, azpikontratazioa,...), gure lan osasunaren prekarizazioa ere eragiten da.

Sexuaren araberako lan banaketaren ondorioz, emakumeon* gain gelditzen dira zaintza lan gehienak, lanaldi bikoitzak eta hirukoitzak sortuz. Horrek, gure ongizatean, gorputzetan eta osasunetan eragin negatiboak ditu. Zaintza lan guztiak (izan soldatapekoak ala ez) aitortuak eta era justuan banatuta egon arte, emakumeon* bizitzak ez dira osasuntsuak izango, ahal duguna eta dagokiguna baina lan zama handiagoa hartzen ari baikara.

Sektore feminizatueta gaixotasun profesional gehienak ez daude aitortuta eta ez dira kontuan hartzen, izan zeregin errepikakorrek eta karga-zereginekin lotutakoak eta sistema muskulo-eskeletikoan eragin zuzenak dutenak, zein aitortu gabeko zaintza lanei lotutako arrisku psikosozial guztiak, osagai emozional oso altukoak. Estresarekin lotutako gaixotasunak bi

aldiz gehiago jasaten dituzte emakumeek gizonezkoek baino. Hau, aldi berean, bihotzeko gaixotasunekin, muskuloeskeletikoekin, depresioarekin eta akidurarekin lotzen da (NIOSH 2018), baina gehienetan gaixotasun arrunt gisa tratatzen dira, ugazaben mutualitateetara jotzen dugunean sistematikoki ukatzen baitute gaixotasun horien lan-jatorria.

10 urtean emakumeen* laneko gaixotasunak % 44 handitu dira, eta horiek aitortutakoak baino ez dira. Badakigu askoz gehiago direla, batetik, bizi duten prekaritate egoeragatik, eta, bestetik, Mutua Patronalek ukatu egiten baitute patologiek lanarekin zerikusirik dutenik.

Une honetan Hego Euskal Herrian ez dago emakumeok lan eremuan ditugun arrisku psikosozialei (daukagun esposizioagatik sortzen zaizkigun antsietate, depresio edo arazo psikologikoei) lotutako baja bakar bat ere laneko kontigentzia bezala aitortuta. Neurrigabeko iruzur hau Mutua Patronalek beren egunerokotasunean eragiten duten min areagotua da, eta ozen salatu behar dugu Mutua Patronalak, langileria guztiaren, eta batez ere emakumeon, etsaiki direla. Noski, guzti hau ez litzateke egin ahal izango gobernuen jarrera konplizerik gabe.

Ezin aipatu gabe utzi sexu jazarpena edo sexuaren araberako jazarpenaren ondorioz emakumeek* psikologikoki dituzten ondorioak, zeinak gehienetan ez diren lan istripu bezala aitortzen.

Nahiz eta neurri batzuk hartzen ari diren, lantoki osangarriak lortetik eta emakumeen osasunaren berezitasunak kontuan hartetik oso urrun gaude oraindik. Laneko osasuna zentzu integral batean ulertu behar da. Osasun sistema publikoak osasun kalte guztien prebentzioa eta konponketa hartu behar ditu bere baitan, bai enpleguan, bai enplegutik kanpo. Emakumeok pairatzen ditugun gaixotasun asko ikusarazi behar ditugu, gaur egun estatistiketan agertzen ez direnak, baina enpleguan eta bizitzan jasaten dugun prekarietatearen, arrisku psikosozialen, indarkeriaren eta pobreziaren ondorio direnak ere.

Horregatik, LABek maiatzaren 28an eta egunero lan osasuna ikuspegi feminista batetik ulertzeko unea dela eta laneko osasun ekitatibo eta ez diskriminatzailea izateko lan osasunean prebentzio-praktika eraginkorrak behar ditugula aldarrikatuko du.

28 de mayo • DÍA INTERNACIONAL DE LA SALUD PARA LAS MUJERES*

LAS DECISIONES DE LA PATRONAL Y LAS INSTITUCIONES ENFERMAN Y MATAN A LAS MUJERES*

Este 28 de mayo, día Internacional de la Salud para las Mujeres*, LAB quiere reivindicar el derecho a la salud y a la salud laboral de las mujeres* y denunciar la situación en salud laboral que, debido a la precariedad, sufrimos las mujeres* y la falta de la mirada de género en las políticas públicas y privadas de prevención de riesgos laborales.

Poco se sabe sobre la salud de las mujeres* (y cuerpos no heteronormativos), por lo que la respuesta real de las políticas públicas a nuestras necesidades son escasas. El capital no está dispuesto a cambiar todo esto, no está dispuesto a asumir el coste que supondrían estos derechos económicos y laborales para las mujeres*, ya que se sustenta en la salud de las trabajadoras para aumentar sus beneficios.

Para poder entender la salud laboral desde un punto de vista feminista, habría que valorar y tener en cuenta el componente de género, para que no sea excluyente ni discriminatorio. Eso significa ir más allá de los clásicos riesgos de seguridad e higiene, entendiendo que incorporar la perspectiva de género en la salud no implica sólo la protección de la salud reproductiva.

Además, las mujeres* trabajamos toda la vida, en casa o fuera de ella. El trabajo que se hace en casa no genera derechos. Y en el empleo remunerado, dado que se da una división sexual del trabajo, no sólo se da una precarización de nuestras condiciones de trabajo (temporalidad, parcialidad, subcontratación...), sino también una precarización de nuestra salud laboral.

También como consecuencia de la división sexual del trabajo, la mayoría de los trabajos de cuidado recaen sobre las mujeres*, generando dobles y triples jornadas. Esto repercute negativamente en nuestro bienestar, cuerpos y salud. Hasta que todos los trabajos de cuidado (sean asalariados o no) estén reconocidos y estén justamente repartidos, las vidas de las mujeres* no serán saludables, porque históricamente estamos asumiendo más carga de trabajo de la que podemos y de la que nos corresponden.

La mayoría de las enfermedades profesionales en los sectores feminizados no están reconocidas ni son tenidas en cuenta; tanto las relacionadas con tareas repetitivas y de carga con repercusiones en el sistema músculo esquelético, como todos aquellos riesgos psicosociales asociados a trabajos no reconocidos, vinculados a los cuidados, con componentes emocionales muy altos.

Las enfermedades relacionadas con el estrés en las mujeres* doblan a las de los hombres. Esto, a su vez, se relaciona con enfermedades cardíacas, musculoesqueléticas, depresión y agotamientos (NIOSH 2018), que en la mayoría de los casos son

tratadas como enfermedades comunes. Cuando acudimos a las mutuas patronales, sistemáticamente niegan el origen de las mismas.

En diez años las enfermedades profesionales de las mujeres* han aumentado un 44% y eso son sólo las declaradas, porque sabemos que son muchas más, que debido a la situación de precariedad en que se producen, así como al papel de negar el origen laboral de las patologías que hacen las mutuas patronales, la realidad es mucho más grave.

En este momento en Hego Euskal Herria no existe una sola baja reconocida como contingencia laboral asociada a los riesgos psicosociales que tenemos las mujeres en el ámbito laboral (ansiedad, depresión o problemas psicológicos por la exposición que tenemos). Este fraude se suma al dolor que general las Mutuas Patronales en su día a día. Debemos denunciar que las Mutuas Patronales son las enemigas de toda la clase trabajadora y sobre todo de las mujeres, aunque todo esto no se podría hacer sin la actitud cómplice de los gobiernos.

No podemos dejar de mencionar las consecuencias psicológicas de las mujeres por el acoso sexual o por razón de sexo que sufren. En la mayoría de los casos no se reconocen como accidentes de trabajo.

Aunque se están tomando algunas medidas, estamos todavía muy lejos de conseguir unos lugares de trabajo saludables y que tengan en cuenta las especificidades de la salud de las mujeres*. Hay que entender la salud laboral en un sentido integral.

El sistema público de salud debe abarcar la prevención y la reparación de los daños a la salud en su totalidad, en el empleo y fuera de él. Debe visibilizar muchas enfermedades que sufrimos las mujeres*, que a día de hoy no aparecen en las estadísticas pero son consecuencia de la precariedad, los riesgos psicosociales, la violencia y pobreza que sufrimos en el empleo y en la vida.

Por eso, este 28 de mayo como todos los días LAB reivindica que es el momento de entender la salud laboral desde una perspectiva feminista y de hacer una práctica preventiva eficaz, así como un concepto de salud laboral equitativo y no discriminatorio.